



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan Inbertitzen

DEIALDIA

LANDA GARAPENERAKO PROGRAMAKO 2007-2013 4. ARDATZERAKO LAGUNTZEN SUBENTZIOA

I. KAPITULUA JARDUNBIDEAREN XEDEA ETA ESPARRUA

1. artikulua. Entitate dei egilea.

Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariak ekainaren 6an emandako 286/2008 Foru Aginduaren arabera, Cederna Garalur Elkarteak aukeratu da, Tokiko Ekintza Taldearen izaera emanda, Nafarroako Foru Erkidegoaren 2007-2013 urteetarako Landa Garapenerako Programaren 4. ardatzaren (LEADER) barneko estrategiak garatzeko.

2. artikulua. Xedea.

2/2013ko deialdi honen xedea da Nafarroako Foru Erkidegoaren 2007-2013 aldirako Landa Garapenerako Programaren (aurrerantzean LGP) 4. ardatza (LEADER) ezartzeko diru laguntza publikoaren kudeaketa, kontrol, jarraipen eta ebaluazio arauak finkatzea. Aipatu programa Europako Batzordeak onartu zuen 2007ko abenduaren 4an, C (2007) 6163 Erabakiaren bidez,, hurrengo artikuluan zehazten den eremu geografikorako.

3. artikulua. Jardunbidearen esparrua.

Deialdi honetan aurreikusitako neurrietarako laguntza erregimenak Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariak ekainaren 6an eman zuen 286/2008 Foru Aginduak onartutako jarduera eremu geografikoan ezar daitezke. (1. eranskina)

4. artikulua. Finantza hornidura edo DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Finantza-hornidura publikoa, akordio bitartez Nafarroako Gobernuak onartu beharrekoa, **1.224.863,34** euro izanen da, eta honako zenbatekoak izanen ditu neurriak eta urteko:

- 411. 186.244,19 euro Lehiakortasunari buruzko tokiko garapen-estategiak, honela banatuta:
 - 92.753,05 euro 2014 urterako
 - 93.491,15 euro 2015 urterako
- 412. Ingurumen eta landa-eremuei buruzko tokiko garapen-estategiak. 80.787,45 euro, honela banaturik:
 - 35.340,26 euro 2014 urterako
 - 45.247,19 euro 2015 urterako
- 413. Bizi-kalitateari eta landa-eremuen dibertsifikazioari buruzko toki-garapenerako estategiak 957.831,69 euro, honela banaturik:
 - 370.350,37 euro 2014 urterako
 - 587.481,32 euro 2015 urterako



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuan inbertitzen

Bi deialdietatik (ekoizpenekoak/ez ekoizpenekoak) edozeinetan partida osoa esleitzen ez bada, partida batetik bestera eraman ahal izanen da.

TGEk onuradunari eginen dion laguntzaren ordainketa Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren Departamentuak emanen dituen funtsak baldintzatuko dute. Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak LGletaTA Departamentuari 2012, 2013, 2014 eta 2015. ekitaldietako gastuen aurrekontuaren zati bat gastu-konpromisoetatik kanpo uztea eskatuz gero, kontratu honetan onartutako laguntzen ordainketa LGletaTA Departamentuak zehaztuko duen murrizketak baldintzatuko du.

LGletaTA Departamentuk, ekitaldiren batean aurrekontu-murrizketarik ezarriz gero, beretzat gordetzen du kontratu honetan finkatutako laguntzak ondorengo ekitaldiren kargura ordaintzeko ahalmena; halakoetan, 2015. ekitaldiko aurrekontuen kargurako liratekeen emakidak bertan behera gera daitezke. 2015. ekitaldiko deuseztapenak emakidan finkatutako norgehiagokan ezarritako ordenan eginen da, punturik gutxien jaso zuen espedientetik hasita.

Aipatu zenbatekoak Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan jasota daude, eta Europar Batasunaren % 55eko baterako finantziazioa dute, Landa Garapenerako Nekazaritza Funtseko Europarraren (LGENF) bitartez.

II. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUKO DIREN TOKI GARAPENEN ESTRATEGIAK

5. artikulua. Lehiakortasunari buruzko toki garapenerako estrategiak eta proiektu edo ekintza motak.

Lehiakortasunari buruzko toki garapenerako estrategiak nekazaritza eta baso sektorearen lehiakortasuna areagotzera zuzenduta daude, LGPren 1. ardatzean jasotako neurriak osatuz. Cederna Garalur Elkartearen proposatzen dituen estrategiek honako hauek dituzte helburu:

- Ezagutza eta teknologia berriak erabiltzea, lurraldeetako produktuen eta zerbitzuen lehiakortasuna areagotze aldera.
- Tokian tokiko produktuak eta natur eta kultur baliabideak balorizatzea, bereziki, taldetan landutako ekoizpen jarduera txikiak merkatuan txertatzen lagunduz.
- Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, eta adinagatik edo egoera ahulean dagoen talde bateko kide izateagatik eman daitezkeen diskriminazioaren aurkako borroka.

Neurri horien onura jaso dezaketenen proiektuak edo ekintzak honako hauek dira, besteak beste:

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtza: Europa landa eremuetan Inbertitzen

NEURRIAK ETA EKINTZAK	LGPK DIRUZ LAGUN DEZAKEEN GEHIENEZKO KOPURUA PRIMAK KALKULATZEKO SISTEMAREN GAINEKO NFE 2007-2013 LGPREN 4. ARDATZEKO (LGENF) NEURRIAK ARAUTZEN DITUEN ARTIKULUA	LEADEREN* LAGUNTZA MUGA (EUROTAN)
411 Lehiakortasunari buruzko tokiko garapen-estrategiak:		
411.1 Nekazaritzako artisau produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko zerbitzuak sortzeko laguntza (tokiko esku-langintzari lotutako salmenta puntuak), modu integratuan eta berritzailean, prozesu osoa barne hartzen duten ekintzak; hasi ekoizpenetik, eta merkaturatze eta forma berrietaraino (Internet, eta abar).	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	25.000,00
411.2 Nekazaritzako artisau produktuak merkaturatzera, produktu sorta aukeratzera, produktu horiek merkatuan posizionatzera, eta ohiko hurbiltasuneko merkatuak zabaltzera zuzendutako ekintzak antolatzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	25.000,00
411.3 Lankidetzarako eta produktu alternatiboko enpresa berritzaileak sortzeko proiektu pilotuak: nekazaritzako elikagaienak ez direnak, organikoak, zinegetikoak, mikologikoak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	25.000,00
411.4 tokiko nekazaritza sektorean gizartea eta kultura sustatzeko proiektuak; tokiko eta kultur baliabideei buruzko informazio ekimenak, dibertsifikazioa bultzatzeko, eta emakumeen eta gazteen parte hartzea errazteko.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	25.000,00
411.5 Ekoizpen ekologikoari eta ekoizpen integratuari sostengua: Ekoizpeneko proiektu kolektiboak, eraldaketa eta komertzializazioa.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	25.000,00
411.6 Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basogintzaren kudeaketan ohiko jarduera onak bultzatzen dituzten proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	25.000,00

Oro har, jarduerak Erkidegoko, Estatuko eta foruko markoetan eta xedapenetan jasotako salbuespenak eta mugak errespetatuko dituzte sistematikoki.

1698/2005 Araudiko (EB) 64. artikulua bide ematen du toki garapenerako estrategien barnean sartuta dauden eragiketak aipatu araudiko IV. izenburuko I. Kapituluko 1. ataletik 3. atalera definitutako eragiketarik edozeinekin bat etortzeko; betiere, LGPren 1etik 3rako, hurrenez

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan Inbertitzen

hurren, ardatzen barnean ez badaude, eta 1782/2003 Araudiaren (EB) baldintzazkotasun kontrola eska dezaketen azaleko ordainketak egin behar ez badira. Hala ere, proposatutako eragiketak ez dira Erkidegoaren Arautegira mugatu behar; izan ere, aipatu ardatzetako helburuak lortzen lagunduko duten beste eragiketak aukera baitaitezke.

6. artikulua. Ingurumen eta landa eremuei buruzko tokiko garapen estrategiak eta proiektuak edo ekintzak.

Ingurumenari eta landa eremuari buruzko garapen estrategiak Foru Erkidegoko landa eremuetako eta/edo mendialdeko natur baliabideak eta paisaia babestera eta hobetzera zuzenduta daude, eta, Natura 2000 sareko Batasunaren Intereseko Lekuekiko, Ingurumen eta Uraren Zuzendaritza Nagusiaren egintza osatzen dute, bereziki nekazaritza eta baso lurri, eta horien eraginpean dauden lurri dagokienez.

Neurri horien onura jaso dezaketen proiektuak edo ekintzak honako hauek dira, besteak beste:

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan Inbertitzen

NEURRIAK ETA EKINTZAK	LGPK DIRUZ LAGUN DEZAKEEN GEHIENEZKO KOPURUA PRIMAK KALKULATZEKO SISTEMAREN GAINEKO NFE 2007-2013 LGPREN 4. ARDATZEKO (LGENF) NEURRIAK ARAUTZEN DITUEN ARTIKULUA	LEADEREN* LAGUNTZA MUGA (EUROTAN)
412 Ingurumen eta landa-eremuei buruzko tokiko garapen-estrategiak		
412.1 Natur ondarerako kudeaketa-plan kolektiboak lantzea eta martxan jartzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00
412.2 Batasunaren intereseko lekuetako natur ondarea kudeatzeko proiektuak sarean paratzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00
412.3 Batasunaren intereseko lekuetako (EIL) eta horien eraginpean dauden eremuetako paisaia eta landa ondarea zaintzeko proiektu pilotu kolektiboak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00
412.4 Ekintza berritzaileak diseinatzea, Natura 2000 sareko zonaldeetan eta horren eraginpean dauden eremuetan paisaia zaintzera bideratuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00
412.5 Tokiko natur ondare txikia zaintzeko eta berreskuratzeko lehiaketa.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00
412.6 Natur baliabideak zaintzeko, berreskuratzeko eta hobetzeko proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00
412.7 Ingurumen heziketako eta interpretazioko proiektuak, jarduera onak eta berrikuntza.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00
412.8 Energia berriztagarrien erabilpena eta birziklatzea erakusten duten proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00
412.9 Natur ondarea kudeatzeko proiektuak sarean paratzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00
412.10 Tokiko Agenda 21en eta /edo garapen integraleko planen ondorio diren jarduera berritzaileak eta erakusgarriak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40	30.000,00

Oro har, jarduerak Erkidegoko, Estatuko eta foruko markoetan eta xedapenetan jasotako salbuespenak eta mugak errespetatuko dituzte sistematikoki.

1698/2005 Araudiko (EB) 64. artikulua bide ematen du toki garapenerako estrategien barnean sartuta dauden eragiketarako aipatu araudiko IV. izenburuko I. Kapituluko 1. ataletik 3. atalera definitutako eragiketarik edozeinekin bat etortzeko; betiere, LGPren 1etik 3rako, hurrenez hurren, ardatzen barnean ez badaude, eta 1782/2003 Araudiaren (EB) baldintzazkotasan kontrola eska dezaketenez azaleko ordainketak egin behar ez badira. Hala ere, proposatutako

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

eragiketak ez dira Erkidegoaren Arautegira mugatu behar; izan ere, aipatu ardatzetako helburuak lortzen lagunduko duten beste eragiketak aukera baitaitezke.

7. artikulua. Bizi kalitateari eta landa eremuen dibertsifikazioari buruzko toki garapeneko estrategiak eta proiektuak edo ekintzak.

Bizi kalitateari eta landa eremuen dibertsifikazioari buruzko toki garapeneko estrategien asmoa da Foru Erkidegoko landa eremuetako eta/edo mendialdeko nekazaritza jarduerarekiko sektore osagarriak bultzatzea eta finkatzea, bereziki turismoa eta zerbitzuak, dibertsifikazio ekonomikoak bizi kalitatea hobetzea ahalbidetze aldera.

Neurri horien onura jaso dezaketen proiektuak edo ekintzak honako hauek dira, besteak beste:

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtisa: Europa landa eremuetan Inbertitzen

URRIAK ETA EKINTZAK	LGPK DIRUZ LAGUN DEZAKEEN GEHIENEZKO KOPURUA PRIMAK KALKULATZEKO SISTEMAREN GAINEKO NFE 2007-2013 LGPREN 4. ARDATZEKO (LGENF) NEURRIAK ARAUTZEN DITUEN ARTIKULUA	LEADEREN* LAGUNTZA MUGA (EUROTAN)
<p>413 Bizi-kalitateari eta landa-eremuen dibertsifikazioari buruzko toki-garapenerako estrategiak: Ekintza honek 3. ardatzeko 312, 313, 321, 322 eta 331 neurriak garatzen ditu.</p>		
<p>312 Mikroenpresak sortu eta garatu:</p>		
<p>312.1 Enpresa kultura eta izaera sustatzeko ekimenak: lehiakortasuna hobetzeko enpresa diagnostikoak, berrikuntza bultzatzea, jardunaldiak eta mintegiak, enpresa informazioa zabaltzea, sentsibilizazioa enpresa kulturaren eta sormenaren arloetan.</p>	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
<p>312.2 Enpresa proiektuak sortzea: lurraldeen baliabide propioak baliatuz, izaera berritzailekoak, eta/edo enplegu hobi berrietara atxikiko direnak.</p>	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
<p>312.3 Banakako proiektuen lehiakortasun mugak gaitutuko dituzten taldeen enpresa proiektuak sortzea.</p>	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
<p>312.4 Lankidetzak publiko eta pribatuko ekoizpen proiektuak sortzea.</p>	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
<p>312.5 Enpresa sortu berriak edo enplegu berriak sortuko dituzten enpresak finkatzea.</p>	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
<p>312.6 Sareak sortzea eta enpresen arteko lankidetzak: ETEko lankidetzak proiektuak, eta enpresa ehuneko sare lanak.</p>	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
<p>313. Turismo jarduerak sustatzea:</p>		
<p>313.1 Landa eremuetan eta/edo Nafarroako mendi eremuetan kokatzen diren turismo zerbitzuen eskaintzarekin lotura duten turismo zerbitzuak garatzea eta/edo merkaturatzea.</p>	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
<p>313.2 Turismo xedeko kalitate plan batera biltzea: kalitatea kudeatzeko sistemak diseinatu eta ezarri.</p>	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
<p>313.3 Turismo produktuak sortu, kudeatu eta merkaturatu, hala dagokionean sostengu azpiegitura txikiak abian paratzeko aukera kontuan hartuz, besteak beste: informazio guneak eta turismo guneak seinalezatu, eta/edo aisiarako</p>	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

azpiegitura txikiak, natur eremuetarako eta ostatu emateko gaitasun txikia duten azpiegituretarako sarbidea ematen dutenak, kasu.		
313.4 Landa eremuan kokatuta dauden turismo produktuen kudeaketa-plan kolektiboak landu eta abian paratu.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
313.5 Lankidetzeta eta turismo produktuak sortzea, merkatuan leku bat izate aldera.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
313.6 Landa eremuan kongresuen turismoa, ekitaldiak eta pizgarriak sustatzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
321 Landa eremuetako ekonomiarentzako eta herritarrentzako oinarrizko zerbitzuak		
321.1 Herri txikietan, herritarrei zuzendutako erabilera anitzeko ekipamendu txikiak eta zerbitzu ekipamenduak sortzea eta egokitzea: beste proiektuak sustatzeko gaitasuna duten proiektuekin bateragarriak izan daitezkeen toki proiektuak, arazo horizontalei heltzeko proiektu pilotu berritzaileak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
321.2 Kudeaketa plan kolektiboak, herritarrentzako kultur eta aisia jarduerarako, tokiko erabilera anitzeko ekipamendua baliatuta.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
321.3 Landa eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, eta emakumeek landa bizitzako eta ekonomiako arlo guztietan parte hartzea bultzatzeko ekimenak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
321.4 IKTbak erabiltzea errazteko, eta horien bitartez zerbitzuak hurbiltzeko jarduerak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
321.5 Landa eremuaren eta hiri eremuaren osagarritasuna bultzatuko duten proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
321.6 Tokiko Agenda 21en eta/edo garapen integraleko planen ondorio diren eskualde jarduerak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
321.7 Kulturen arteko harremana sustatuko duten jarduerak, gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua duten kolektiboak integratzeko,	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

321.8 Sustatzaile izateko eta enpresa ehuna sustatzeko zerbitzu kolektiboan inguruko ekimenak eta proiektuak, enpresa zentroetatik eta telezentroetatik bultzatuta.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
322. Landa herriak berritzea eta garatzea:		
322.1 Landa eremuaren eta hiri eremuaren osagarritasuna bultzatuko duten proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
322.2 Garapenerako plan integralak egiteko eta/edo herrigune historikoak dinamizatzeko laguntza teknikoa.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
322.3 Garapenerako plan integralen eta/edo herrigune historikoak dinamizatzeko planen ondorio diren jarduerak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
322.4 Tokiko Agenda 21en eta/edo garapen integraleko planen ondorio diren eskualde jarduerak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
323. Landa eremua zaintzea eta hobetzea:		
323.1 Tokiko natur ondare txikia eta ondare arkitektonikoa zaintzeko eta berreskuratzeko lehiaketa.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
323.2 Natur ondarea eta ondare arkitektonikoa zaintzeko, berreskuratzeko eta hobetzeko proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
323.3 Kultur ondareko baliabideak kudeatzeko eta sustatzeko plan kolektiboak lantzea eta horiek abian paratzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
323.4 Kultur ondarea eta ondare arkitektonikoa kudeatzeko proiektuak sarean paratzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
<p>331 3. ardatzean parte hartzen duten eragile ekonomikoak prestatzea eta informazioa ematea. Ekintza honen barnean sartzen dira toki entitateak, irabazi asmorik gabeko entitateak, enpresak eta familia ustiapenak, nahiz 3. ardatzeko helburuak lortzen parte hartzen duten beste eragileak Eta 3. ardatzeko helburuak lortzen inplikaturik dauden famili ustiapenak edo bestelako eragileak Honako proiektu mota hauek bereizten dira:</p>		

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtse: Europa landa eremuetan Inbertitzen

331.1 Lan munduan txertatzeko prestakuntza: sentsibilizazio ekintzak, prestakuntza teknikoa, eta prestakuntza zonaldean egon daitezkeen jarduera aukera berriei erantzunen dieten trebetasunetan.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
331.2 Lehiakortasuna hobetzeko prestakuntza: iraupen laburreko moduluak, premia zehatzeen arabekoak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
331.3 Negozio txikia kudeatzeko landa gela.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
331.4 Ikaskuntza elektronikorako sostengua, IKTBetarako sarbidea izateko, eta telezerbitzuak eta telelana erabiltze aldera.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
331.5 Jarduera lagungarriak garatzeko prestakuntza, LGENF programako neurriak baliatuz.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00
331.6 Ideia bankuak eta proiektu eredugarriak kudeatzea eta zabaltzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	50.000,00
331.7 Prestakuntza eta sentsibilizazioa egnero eta aukera berdintasunean.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30	24.000,00

Ez dira diruz lagunduko honako ekintza hauek:

- ✓ Web orriak, blogak
- ✓ Haur-parkeak.
- ✓ Herri-argiteriak eta lurperatzeko lanak.
- ✓ Aparkalekuak
- ✓ Zoladurak
- ✓ Biltegiak
- ✓ Zabortegiak leheneratzea.
- ✓ Harri-lubetak.
- ✓ Pilotalekuak
- ✓ Kirol-instalazioak.
- ✓ Jardunaldiak, gai/jai egunak, azienza-lehiaketak, azokak eta kongresuak. Erakundeak berak (Cederna Garalur) antola ditzakeenetara eta/edo erakundea beste ekitaldietan parte hartzera mugatzen da.
- ✓ Landetxeak, turismo-establezimenduak: aukeragarriak izanen dira baldin eta eskatutako laguntzarekin egindako inbertsioak enplegua sortzen badu, tokiko ondarea berreskuratzea badakar, eta beren eskaintzan proposamen berritzaileak eta besteekiko desberdinak jasotzeko gaitasuna badu, betiere tokiko baliabideei balioa emanez eta horiek sustatuz. Halaber, beren eguneroko jardunean eta kudeaketan jarduera onen eskuliburua edota kalitatearen Q sistema ezartzeko konpromisoa (kontratua/laguntza) hartu beharko dute, eta ingurumen iraunkortasuneko neurriak

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuan inbertitzen

gehitu beharko dituzte. Ez dira deialdi honetan jasoko aurreikusitako eskaintza osoa hartzen ez duten hasierako faseak.

Elkartekideak ez diren udalek aurkeztutako proiektuak ez dira lehen unean baloratuko. Laguntzak jasotzeko aukera izanen dute baldin eta aurrekonturik geratzen bada, udal elkartekideek aurkeztutako proiektuak baloratu ondoren. Portzentajea eta esleitu beharreko kopurua proiektu publikoetarako ezarritakoaren % 50 izanen da.

Oro har, jarduerak Erkidegoko, Estatuko eta foruko markoetan eta xedapenetan jasotako salbuespenak eta mugak errespetatuko dituzte sistematikoki.

1698/2005 Araudiko (EB) 64. artikulua bide ematen du toki garapenerako estrategien barnean sartuta dauden eragiketak aipatu araudiko IV. izenburuko I. Kapituluako 1. ataletik 3. atalera definitutako eragiketarik edozeinekin bat etortzeko; betiere, LGPrek 1etik 3rako, hurrenez hurren, ardatzen barnean ez badaude, eta 1782/2003 Araudiaren (EB) baldintzazkotasan kontrola eska dezaketen azaleko ordainketak egin behar ez badira. Hala ere, proposatutako eragiketak ez dira Erkidegoaren Arautegira mugatu behar; izan ere, aipatu ardatzetako helburuak lortzen lagunduko duten beste eragiketak aukera baitaitezke.

PRESTAKUNTZA proiektuetarako, 1698/2005 Araudiko (EB) ezartzen duenaren arabera, laguntza hauek ez daude sartuta heziketa arautuko klaseak edo prestakuntza-planak eta/edo bigarren mailako edo goi-mailako irakaskuntzako programetako nahiz ohiko hezkuntza-sistemetakoak direnak

III. KAPITULUA

GUZTIENTZAKO XEDAPENAK

8. artikulua. Laguntzen hartzaileak.

Kapitulu honetan xedatutako laguntzak jaso ahal izanen dituzte:

- a) Ekoizpeneko proiektuetarako (sarrerak sortzea helburu duten inbertsioak eta gastuak):
- Pertsona fisiko bakar batek nahiz bik osatutako enpresak.
 - Merkataritza-sozietateak, eraldaketako nekazaritza-sozietateak, kooperatibak, lan-sozietate anonimoak, eta abar.
 - Tokian tokiko entitate publikoak (kontzejuetakoak, udaletakoak nahiz udalaz gaindikoak).
 - Nortasun juridiko aitortua duten beste entitate batzuk. Fundazioak, elkarteak, partzuergoak, sindikatuak, nekazaritza erakunde profesionalak, eta abar.

9. artikulua. Erregimenean sartu ahal izateko alde zuzeneko baldintzak.

Laguntzen araubide honetara heltzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Aurkeztuko den proiektuak honako hauek jaso beharko dituzte gutxienez:


LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtse: Europa lande eremuetan Inbertitzen

1. TET batek proposatutako eta Nafarroako Gobernuak onartutako toki garapeneko estrategiaren barruan kokatuta egotea.
 2. Toki garapeneko Estrategien helburuetakoren bat betetzen laguntzea.
 3. Nagusiki, dagokion Tokiko Ekintza Taldearen tokiko garapen estrategiak betetzen duen lurraldean garatzea. Hala ez bada, harreman estua behar du egon lurralde horrekin, eta onuragarria izan behar du lurralde horren garapenerako.
 4. Hasierako egoera, eta jarduerak garatzeko mugarrak eta helburuak.
 5. Inbertsio-plana, gastu orokorrak eta martxan jartzea.
2. Ekoizpeneko proiektuak direnean, aurrekoez gain:
6. Inbertsioak eta gastuak arlo teknikoan, komertzialean, ekonomikoan eta finantzarioan bideragarriak direla frogatu beharko da. Besteak beste, honako hauek deskribatuko dira:
 - Marketin-plana: merkatu-azterketa, merkataritza-helburua eta salmenten aurreikuspena, prezioak, banaketa eta merkaturatzea.
 - Eragiketa plana: ekoizpen-prozesua, maila teknologikoa, baliabide materialak (makineria, tresneria, ibilgailuak...) eta giza baliabideak, ekoizteko gaitasuna, hornikuntza, biltegiatzea.
 - Ekonomi eta finantza-plana, behin-behineko ustiapenaren kontua, behin-behineko balantzea eta finantziazio iturriak.
 7. Europako Batzordeak mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainari buruz egindako 2003/361/CE Gomendioaren arabera, enpresa txikia izatea. Kooperatibei, eraldaketako nekazaritza sozietateei, lan sozietate anonimoei, nahiz nekazaritzako produktuak ekoizten, merkaturatzen eta/edo eraldatzen dituen lan elkartuko beste edozein entitate juridikori dagokienez, 750 langile baino gutxiago dituztenak, eta 200 milioi eurotik beherako negozio bolumena dutenak izan daitezke onuradunak.
3. Laguntza jasoko duten inbertsioak laguntza eskaera aurkezteko data baino lehen hasi ez izana. Ondoren aipatzen diren eskaera egin aurreko inbertsioak edo gastuak soilik lagunduko dira diruz (betiere, 2007ko maiatzaren 7ko mugarekin):
1. Perituen soldatak.
 2. Bideragarritasun-azterketaren gastuak.
 3. Materialak erostea.
 4. Patenteak eta lizentziak eskuratzea.
 5. Baimenak lortzea.
4. Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan egunean dagoela erakusten duen ziurtagiria, eta laneko arriskuei aurrea hartzeko legeak xedatutakoa betetzea.
- Eta bereziki:
5. Turismo-jarduerekin, ostatu emateko zerbitzuekin, denbora librearekin, aisiarekin eta antzekoekin lotura duten proiektuetan, Vianako Printzea Erakundea - Kulturako,

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtse: Europa landa eremuetan inbertitzen

Turismoko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren aldeko txostena aurkeztu beharko da.

6. Lehen sektoreko jarduerekin lotura duten proiektuetan, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren aldeko txostena aurkeztu beharko da.
7. Jarduera berria, osorik eta zati batean, Batasunaren intereseko lekuren batean garatzen bada, Cederna Garalur Elkarteari idazkia igorri beharko zaio leku horren erabilera- eta kudeaketa-planarekin bat datorrela adierazteko.

Ez dute laguntzarik jaso ahal izanen diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 13. artikuluko 2. puntuan jasotako egoeraren batean daudenek.

10. artikulua. Onuradunaren konpromisoak eta betebeharrak.

1. Oro har, toki garapenerako estrategietako onuradunek honako konpromiso hauek hartu beharko dituzte:

- a) Diru laguntza jasoko duen jarduera, eskakizunak eta baldintzak gutxienez bost urtez mantenduko dira inbertsioak bukatu zirenetik, eta obra amaieraren edo dokumentu baliokidearen ziurtagiriarekin justifikatuko da.

Ezinbesteko kasuetan, jarduera bertan behera uzteko, edo neurriekin bat datozen helburuak eta eskakizunak bete ditzaketen jardueretara aldatzeko, 20. artikuluan eta 16. artikuluan hurrenez hurren, aipatutako helburuak eta eskakizunak hartuko dira kontuan.

- b) Emakidan jasotako epean egitea inbertsio plana, eta onartutakora lotura.
- c) Proposatutako proiektuak berariazko erregulazioa duten jardueri dagokienean, aipatu arauetan ezarritakoa bete beharko dute.
- d) Laguntzak jasotzeko, inbertsioarekin lotura duten gastuak justifikatu behar dira; horretarako, gastuei dagozkien dokumentuak, elektronikoak barne, gorde beharko dira.
- e) Proiektua gauzatea ezar daitezkeen arau komunitarioak eta estatukoak betez; bereziki, gastuen subentzionagarritasunari, estatuko laguntzei, kontratazio publikoari, publizitateari, ingurumenaren babesari, eta aukera berdintasunari dagokienez.
- f) Administrazioak diru laguntzak behar bezala eman direla, eta hartutako konpromisoak bete direla bermatzeko eginen dituen kontrolen mende egotea. Jarduera horiek honako hauek gara ditzakete: Europako Batzordeak, programa kudeatzen duen agintaritzak, Estatuaren Administrazioaren kontu-hartzaileak, kontu-auzitegiak, kontuetako ganberak, eta Nafarroako Gobernuko zerga-arloko organoek. Horiez gain, Nafarroako Foru Erkidegoan FEAGA eta LGENF laguntzak ordaintzen dituen erakundearen kontrola eta kontu-hartzaileak.
- g) Helburu berbererako bestelako sarrerak, laguntzak nahiz subentzio publikoak edo pribatuak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, deialdi honetako 24. artikuluan xedatutakoa betez.
- h) Kontabilitatean edo erregistro liburuan inbertsioetarako kontabilitate-idazpenak eta jasotako diru laguntzak erregistratzea, ondorengo kontzeptuan adierazitako indarreko araudiak behartutako kasuan: "LGENF – Nafarroako Gobernuaren tokiko garapen estrategietarako subentzioak LEADERen. LGP 2007-2013"
- i) 50.000 eurotik gorako inbertsioa duten jardueretarako, proiektuaren edo eragiketaren deskribapena jasoko duen plaka bat paratuko da; azalpenak plakaren % 25 hartuko du gutxienez. Horrez gain Europako bandera agertuko da, 1974/2006 Araudiko (EB) VI.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtse: Europa landa eremuetan inbertitzen

Eranskineko 4. puntuan ezartzen diren arau grafikoak betez, eta horrekin batera "Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtse: Europak landa eremuetan inbertitzen du" dioen esaldia paratu beharko da, baita Nafarroako Gobernuaren ikur ofiziala ere.

- j) Proiektuak irauten duen bitartean, jarraipen eta ebaluazio adierazleak lantzeko beharrezkoak dituen datuak ematea organo kudeatzaileari.
- k) Tokiko Ekintza Taldeak aurkeztutako tokiko garapen estrategiak edo eskumena duen agintariak erabakitzen duen beste edozein, neurria hobeto kudeatu, kontrolatu eta aplikatze aldera.

2. Inbertsioen inguruko eragiketen iraunaldiari buruzko 1698/2005 Araudiko (EB) 72. artikulua araberak, eta Ituneko 43. eta 49. artikuluetan definitutako establezimendu askatasunari eta zerbitzuak libreki emateari buruzko araudiei kalterik sortu gabe, inbertsioak ez du izanen kudeaketa agintaritzak hartutako erabakiaren datatik hurrengo bost urteetan inolako aldaketa garrantzitsurik:

- izaerari edo gauzatzeko baldintzei eraginen dienik, edo enpresaren bati edo erakunde publikoren bati bidegabeko abantaila emanen dionik, eta
- azpiegituraren baten jabetza erregimenaren izaera-aldaketaren ondorio izango denik, edo ekoizpen jarduera bat etetearen edo kokapen-aldaketaren ondorio izango denik.

3. Konpromisoari eusten zaiela ulertuko da onuradunak erretiroa hartzen duenean; betiere, hura ordezkatzeko duenak eskakizunak betetzen baditu, eta jarduerari eustearekin, inbertsio plana osorik betetzearekin eta laguntza emateko hartu ziren konpromisoekin lotura duten betebeharretan subrogatzen bada.

11. artikulua. Inbertsioak eta diruz lagun daitezkeen gastuak.

1. Toki garapenerako estrategiak honako inbertsioak lagun ditzake diruz:

a) Ekoizpenekoak diren jardueretarako:

- Lursailak erostea (nekazaritzako produktuak balorizatzeko izan ezik) eta egokitzea, proiektuaren orientazioarekin bat etorrira, diruz lagun daitezkeen inbertsio osoaren % 10 gainditu gabe.
- Eraikinak eraikitzea, erostea, egokitzea edo hobetzea, proiektuaren orientazioarekin bat etorrira.
- Ekipamendu ondasunez hornitzea: makineria eta ekipo berriak erostea; horren barne, euskarri eta aplikazio informatikoak, makineria eta ekipoetarako instalazioak, tresneria eta subentziona daitezkeen inbertsioen ondasunen gaineko eskubideak (ibilgetu ez-materiala).
- Barne-garraiorako elementuak (betiere, erosiko diren xederako erabiltzen badira, eta, gutxienez, bost urtetarako konpromisoa hartzen bada).

c) Landa eremuetako bizi kalitateari eta eremu horien dibertsifikazioari buruzko toki garapenerako estrategien araberak, prestakuntza eta informazio jardueretarako subentziona daitezkeen gastuak honako hauek dira:

- Beharrezkoak diren materialak eta ekipoak.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invertirte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtza: Europa landa eremuetan inbertitzen

- Bidaiak eta dietak (onartutako foru-araudia betez).
- Irakasleak eta adituak kontratatzeako gastuak, eta pertsonal propiorako gastuak.
- Erakunde kudeatzaileak lehentasunezkoztat jo dezakeen beste edozein; betiere, gastu hori LGPren 3. ardatzean esku hartzen duten eragileen prestakuntza eta informazio ekintzak garatzeko helburuarekin lotura duen proiektu baten ondorioa bada.

2. Diruz lagun daitezkeen kostu orokorrak eta abian paratzekoak ondorengo hauek dira, diruz lagun daitezkeen inbertsioaren % 12 gainditu gabe:

- a) Notariokoak eta erregistrokoak; proiektuan aurreikusitako jarduera abian paratzeak sortutakoak.
- b) Baimenak, patenteak, lizentziak eta administrazioak eskumenak ematea.
- c) Ekonomi azterketak, bideragarritasunekoak, merkatukoak, lege edo finantza aholkularitzakoak, adituenak, eta arkitektoen, ingeniarien eta aholkularien ordainsariak, proiektuak idazteagatik gastuak, obra zuzendaritzakoak, txostenenak eta planenak.
- d) Kalitatea bermatzeko ziurtagiri sistema ezartzea.

3. Nola inbertsioetan, hala martxan jartzeko gastuetan, erakunde kudeatzaileak lehentasunezkoztat jo dezakeen beste edozein ekintza finantza daiteke, betiere, onuradunak proposatu duen toki garapenerako estrategiako proiektu baten ondoriozkoa bada.

4. Ez dira diruz lagungarriak izanen:

- a) Makineria eta ekipoak eskuratzeko finantza errentamendua.
- b) Bigarren eskuko ekipoak erostea.
- c) Onuradunak berreskura ditzakeen BEZa eta/edo beste zergak, interes zordunak eta ezkontideen eta lehen eta bigarren mailako familiakoen arteko ondasun transmisioak (transmisio prozedura modua edozein dela ere) ordaintzera bideratutako gastuak.
- d) Eskara aurkeztu aurretik egindako inbertsioak, proiektuen ordainsariak, bideragarritasun azterketak, eta eraikitze baimenekin eta patenteak eta lizentziak erostearekin lotura duten gastuak izan ezik, betiere 2007ko maiatzaren 7az geroztikoak badira, horixe baita Nafarroako Foru Erkidegoaren 2007-2013 Landa Garapenerako Programa onartzen duen Gobernu akordioaren data.
- e) Arrantzako eta nekazaritzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.
- f) Esnearen edo esnekien antzeko edo ordeko produktuak fabrikatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.
- g) Gastu orokorrak eta industri mozkinak (GO+IM)
- h) Zeharkako gastu orokorrak
- i) Nominak, hitzarmeneko IV. kapituluko 35. artikuluan xedatutako jasotzaileenak izan ezik.

5. Diru-laguntzaren xede den gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik goitikoa denean, obraren exekuzioaren kostuaren kasuan, edo 12.000 eurotik goitikoa, aholkularitza edo laguntza enpresek ekipo ondasunak edo zerbitzuak ematen dituztenean, onuradunak bermatu beharko du enpresa hornitzailearen aukeraketa eraginkortasun eta ekonomia irizpideak ezarrita egin dela, salbu eta diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarriengatik merkaturatzen enpresa hornitzaile edo zerbitzu emaile nahikorik ez badago (11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, eta 38/2003 Legea Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa). Alderdi horiek hiru hornitzailearen proposamenak aurkeztuta justifikatuko dira; entitate publikoek kontratu

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremustan Inbertitzen

publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen bitartez eta sektore publikoko kontratuei buruzko 30/2007 Legearen bitartez justifikatu ahal izanen dute.

5.1. Kostuen moderazioa betetze aldera, emakida aurretik egindako laguntza-eskaerako aurrekontuetan, kostu unitarioak baloratuko dira, eta beste espedientetan jasotako gastu-azalpenekin alderatuko dira; horrela, datuak baldin badaude, bi erreferentzia-prezio hartuko dira.

6. Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legetik, 1698/2005 Europako Erregelamenduko 71. artikuluko a) ataleko 3. puntutik, eta Europako Kontseiluaren 77/388 Seigarren Zuzentarauko 4. artikuluko 5. ataleko lehen paragrafotik ondorioztatzen denaren arabera, ez dira gastu subentzionagarriak izanen berreskura edo konpentsa daitezkeen zeharkako zergak.

7. Inbertsioak edo gastuak diruz lagunduko diren zehazteko, abenduaren 4ko 1852/2009 Errege Dekretua ezarriko da; honek, Landa Garapenerako Nekazaritza Funts Europarrak (LGENF) batera finantzatzen dituen Landa Garapenerako Programen barnean gastuak diruz laguntzeko irizpideak ezartzen ditu. Aipatu Errege Dekretua Estatuaren Aldizkari Ofizialean (1. zk) eman da argitara, 2010eko urtarrilaren 1ean.

12. artikulua. Prima kalkulatzeko sistema.

1. Toki garapenerako estrategietako laguntza zuzenerako diru laguntza bitartez eginen da.

2. Laguntza mota kontuan hartuta, prima kalkulatzeko oinarria, aurkeztutako proiektuan aurreikusitako gastu hautagarriak izanen dira.

3. Nafarroako Gobernuak emanen duen diru laguntza maximoa (Nafarroako Gobernuaren eta LGENFren ekarpenak barne) benetan justifikatutako gastuei eta ordainketei dagokiena izanen da, eta horretarako honako muga hauek ezartzen dira:

a) Ekoizpeneko proiektuetarako:

- Lehiakortasunari eta ingurumen eta landa eremuei buruzko toki garapenerako estrategiak: inbertsioaren eta/edo diruz lagun daitezkeen gastuaren % 40.
- Bizi kalitateari eta landa eremuen dibertsifikazioari buruzko toki garapenerako estrategiak: inbertsioaren eta/edo diruz lagun daitezkeen gastuaren % 30.

b) Ekoizpenekoak ez diren proiektuetarako, inbertsioaren eta/edo gastu subentzionagarriaren % 70. Edonola ere, prima kalkulatzeko, hitzarmena erregulatzen duten arauak xedatutakoa betez.

4. Cederna Garalur Elkarteak diru laguntzen graduazio irizpideak ezarriko ditu laguntza deialdietan, 286/2008 Foru Aginduak onartutako toki garapenerako estrategietan xedatutakoa betez; betiere, hitzarmenaren arau erregulatuzaileen prima kalkulatzeari buruzko artikuluan xedatutakoa betez, eta artikulua horretan aipatutako mugak gainditu gabe. Aipatu irizpideak honako hauek izan daitezke, besteak beste:

- Tokia: mendialdea, egoera ahulean dauden eremuak, eta abar.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan Inbertitzen

- Gastu edo inbertsio mota: makinak, eraikinak, eta abar.
- Sozietate mota (sozietate anonimoa, kooperatiba, eraldaketarako nekazaritza sozietatea –ENS–), eta abar.

5. LGENFk diruz lagun daitekeen kostu publikoan izanen duen partaidetza ez da sekula % 55etik gorakoa izanen.

Proiektuak baloratu eta lehentasunak ezarrita, emandako portzentajeak eta/edo laguntzen hainbanaketa doitzea proposatu ahal izanen du erakundeak.

Gutxienez 40 puntu emanen dira. Gutxienerako puntuazioa jaso baina aurrekontu-hornidurarik ez duten proiektuak erreserbara pasako dira, besteren bat gauzatu ezean, horri dagokion partida jasotzeko. Erreserban egonen diren proiektuak inbertsioaren hasmentak baldintzatuko ditu; horrela, erreserban egon ahal izanen dira inbertsioa berehalakoan (15 egun) hasiko dutenak edota funtsak libratu zirenerako hasiak zeudenak, betiere laguntza eskatu ondoren hasiak badira.

13. artikulua. Laguntzak emateko lehentasun irizpideak.

Aurkezteko epea bukatuta, laguntza-eskaerak ekoizpeneko proiektuetan multzokatuko dira, eta eskaeren lehentasun-ordena ezarriko da, ondoren aipatzen diren aukeraketa- eta lehentasun-irizpideak ezarrita. Bi deialdietatik (ekoizpenekoak/ez ekoizpenekoak) edozeinetan partida osoa esleitzen ez bada, partida batetik bestera eraman ahal izanen da proiektu horien artean.

Ekoizpeneko proiektuetan:

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan Inbertitzen

Ekoizpeneko proiektuak

Irizpideen sailkapena	Irizpidea	Puntuak	Gehienezko puntuak (*)
1. Lurraldearen kalifikazioa	1) Herria:		
	a. Biztanleriaren dentsitatea	2	
	b. Beherakada demografikoa	3	
	c. Biztanleriaren zahartzea	4	
	2) Depresio maila, Nafarroako Lurralde Estrategiaren arabera	3	
	3) Gune ekonomikoekiko urruntasuna: 10.000 biztanleko herriekiko distantzia	3	
	4) Muga naturalak edo ingurumenekoak:		
a. Erkidegoak egoera ahulean dagoen nekazaritza eremu gisa izendatu izana:			
- Mendialdea			
- Egoera ahulean dagoen eremua, mendialdekoa ez dena		5	
b. Natur gune babestuak (Natura sarea, Hegaztien Babesgune Berezia -HBB-, natur parkeak, erreserbak, eta abar): natur gune babestuak hartzen duen udaleko luraren % hainbat.		5	25
2. Onuradunaren izaera	5) Sustatzaile kolektiboa edo proiektuaren alderdi integratzailea	7	
	6) Emakumezko sustatzailea	9	
	7) Sustatzaile gaztea	9	25
3. Proiektuaren eragin sozio-ekonomikoa	8) Proiektu berritzailea	4	
	9) Dibertsifikaziorako proiektua	2	
	10) Prestakuntzarako proiektua	0	
	11) Teknologia berrien garapena	1	
	12) Enplegua sortzea: sortutako enpleguak, kalitatea eta egoera ahulenen dauden kolektiboek zuzendutako enplegua	7	
	13) Proiektuaren eragina jasoko duten pertsonak	2	
	14) Erakusketa efektua eta besterentzeko aukera	2	
	15) Eremuko ekonomian eragiteko duen gaitasuna	4	
	16) Beste proiektuekiko sinergiak	1	
17) Kalitatea eta besteekiko desberdintzea	2	25	
4. Proiektuak duen ingurumen inpaktua	18) Ingurumen eragin positiboa		
	a. Suteen aurkako babesa	2	
	b. Higaduraren aurkako babesa	2	
	c. Ur baliabideen kudeaketa	2	
	d. Hondakinen kudeaketa	3	
	e. Bioaniztasuna eta habitaten zaintza	4	
	f. Beste ingurumen eragin positibo bat	7	
19) Baliabide endogenoen erabilera jasangarria	5	25	
Gehienezko puntuazio osoa			100

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtse: Europa landa eremuetan inbertitzen

1. Lurraldearen kalifikazioa

Lurraldea sailkatzerakoan, jarduera landuko den udalerrian aplikatuko diren ondoko irizpideak finkatu dira. Jarduerak eskualde-mailakoak badira, proiektuaren jarduera-esparrua diren udalerriei dagokien batez besteko puntuazioa aplikatuko da.

1) Populazioa:

- a. Biztanleriaren dentsitatea (2011ko erroldako dentsitate-tasaren arabera).
 - ✓ Nafarroako Mendialdearen batez bestekotik beherako tasak dituzten udalerriak: 2 puntu.
 - ✓ Nafarroako Mendialdearen batez bestekotik gorako tasak dituzten udalerriak: 1 puntu.
- b. Gainbehera demografikoa (2001-2011 aldiko galeraren -hazkundearen arabera)
 - ✓ -4,95etik 1,5era bitarteko udalerriak: 3 puntu.
 - ✓ 1,5etik 7ra bitarteko udalerriak: 2 puntu.
 - ✓ 7tik gorako udalerriak: puntu bat.
- c. Biztanleriaren zahartze-maila (65 urtetik gorako biztanleria 2011n)
 - ✓ Nafarroako Mendialdeko batez besteko zahartze-tasaren halako bitik gorako zahartze-tasa duten udalerriak: 4 puntu.
 - ✓ Zahartze-tasa Nafarroako Mendialdeko batez bestekoa baino altuagoa duten udalerriak: 3 puntu.
 - ✓ Nafarroako Mendialdearen batez bestekotik beherako zahartze-tasak dituzten udalerriak: 2 puntu.

2) Depresio-maila, Nafarroako Lurralde Estrategiaren arabera:

- ✓ Mendialdeko herri atzerakorrak (1. eta 2. multzoak): 3 puntu.
- ✓ Nekazaritza eta industria, eta nekazaritza eta industria dibertsifikatuak (3. eta 4. multzoak): 2 puntu.
- ✓ Urbanoak, hornituak eta dinamikoak (5. multzoa): Puntu bat.

3) Ekonomia-guneekiko urruntasuna, 10.000 biztanleko herriekiko distantzia:

- ✓ Herriguneetatik 65 km-ra baino urrunago badago: 3 puntu.
- ✓ Herriguneetatik 30 km-tik 65 km-ra bitartean badago: 2 puntu.
- ✓ Herriguneetatik 30 km-ra baino hurbilago badago: puntu bat.

10.000 biztanle baino gehiago dituzten hiru herrigunerekiko distantzia hartu da kontuan: Irun, Donostia eta Iruña.

4) Muga naturalak edo ingurumenekoak:

- a. Erkidegoak egoera ahulean dagoen nekazaritza-eremu gisa izendatutakoak:
 - ✓ Mendialdeak: 5 puntu
 - ✓ Egoera ahulean dauden eremuak: 4 puntu

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

- b. Natura-eremu babestuak (Natura sarea, Hegaztien Babesgune Berezia -HBB-, natura-parkeak, erreserbak, eta abar): natura-eremu babestuak ukituriko udalerrriaren lurraldearen %:
- ✓ % 30,46 baino gehiago ukitua duten udalerrriak: 5 puntu
 - ✓ % 19,33tik % 30,46ra bitartean ukituak duten udalerrriak: 4 puntu
 - ✓ % 19,33 baino gutxiago ukitua duten udalerrriak: 3 puntu
 - ✓ Ukitu gabeko udalerrriak: 2 puntu

2. Onuradunaren izaera:

- 5) Sustatzaile kolektiboa edo proiektuaren alderdi integratzailea:
- a. Lankidetzak publiko/pribatua: 7 puntu
 - b. Gizarte-ekonomiako sustatzaile pribatua (SLL, SAL, S. Koop.), 5 puntu
 - c. Banako sustatzailea: 3 puntu
- 6) Emakumezko sustatzailea:
- a. Emakumeak tartean badaude: 9 puntu
- 7) Gazte sustatzailea:
- a. Gazteak tartean badaude: 9 puntu
 - b. Langabezian dagoen >45 urteko sustatzailea: 6 puntu

3. Proiektuaren eragin sozio-ekonomikoa:

- 8) Proiektu berritzailea: proiektua berritzailea izanen da lurraldean ordura arte egin ez den jardura burutzen badu.
- a. Berritzailea Mendialdean: 4 puntu
 - b. Berritzailea eskualdean/ibarrean: 3 puntu
 - c. Berritzailea udalerrarentzat: 2 puntu
- 9) Dibertsifikaziorako proiektua:
- a. Zeukanaz bestelako jardura burutzen badu: 2 puntu
- 10) Prestakuntzarako proiektua:
- a. Prestakuntza-proiektua bada: 0 puntu
- 11) Teknologia berriak garatzea:
- a. IKT Bak ikertzen dituztenetan: 1 puntu

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtza: Europa landa eremuetan Inbertitzen

12) Enplegua sortzea:

- a. 2 puntu sortutako enplegu bakoitzeko, + 2 puntu gehigarri lanpostu hori egoera ahulean dauden kolektiboetako kideren batek betetzen badu (gehienez ere 7 puntu). Puntu bat (1) enpleguari eusten badio, gehi puntu gehigarri bat (1) lanpostu hori egoera ahulean dauden kolektiboetako kideren batek betetzen badu (gehienez ere 3 puntu).

13) Proiektuaren eragina jasoko duten pertsonak:

- a. Eskualdea edo ibarra: 2 puntu
- b. Azpi-eskualdea edo udalerrria: puntu bat

14) Erakusketa-efektua eta besterentzeko aukera:

- a. Efektua, eskualde-mailan, proiektuaz kanpoko herritarrengan positiboa bada: 2 puntu
- b. Efektua, udalerrri-mailan, proiektuaz kanpoko herritarrengan positiboa bada: 1 puntu

15) Ekonomian eragiteko duen gaitasuna:

- a. Eskualdean nahiz ibarrean duen ekonomi eragina, enplegua sortzearekin lotuta: 4 puntu
- b. Azpi-eskualdean edo udalerrrian duen ekonomi eragina, enplegua sortzearekin lotuta: puntu bat

16) Beste proiektuekiko sinergiak:

- a. Eskualdean nahiz ibarrean dagoen bestelako enpresa-mota batetiko osagarria bada: Puntu bat.

17) Kalitatea eta besteekiko desberdintzea:

- a. Kalitateko proiektua, egun daudenekiko globalki bestelakoa: 2 puntu
- b. Kalitateko proiektua, gaur egun daudenekiko desberdintasunen bat duena: puntu bat

4. Proiektuak duen ingurumen inpaktua

18) Proiektuaren eragina ingurumenean:

- ✓ Suteen aurkako babesa: 2 puntu eragina positiboa bada; neutroa edo negatiboa bada, ez du punturik.
- ✓ Higaduraren aurkako babesa: 2 puntu eragina positiboa bada; neutroa edo negatiboa bada, ez du punturik.
- ✓ Ur-baliabideen kudeaketa: 2 puntu eragina positiboa bada; neutroa edo negatiboa bada, ez du punturik.
- ✓ Hondakinen kudeaketa: 3 puntu eragina positiboa bada; neutroa edo negatiboa bada, ez du punturik.
- ✓ Bioaniztasuna eta habitaten zaintza: 4 puntu eragina positiboa bada; neutroa edo negatiboa bada, ez du punturik.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen


- ✓ 7 puntu eragina positiboa bada; neutroa edo negatiboa bada, ez du punturik. Ekoizpen ekologikoa litzateke ingurumenerako beste eragile bat.

19) Baliabide endogenoen erabilera jasagarria: 5 puntu

- a. Gutxi erabiltzen diren baliabideei balio eman behar zaie. Gutxi erabilien barnean sartzen dira bai natura-baliabideak, bai ingurumeneko edo herri-izaerako hiri-ondarea.

Oharrak:

1. Ibartzat hartuko dira edozein udalerrri konplexu (edo populaketa erakunde bat baino gehiago dutenak), eta Baztan, 15 herriz osatutako udalerrria.
2. Egoera ahulean dagoen kolektibotzat hartuko da: emakumeena, gazteena, elbarriena, gutxiengo etnikoena eta 45 urtetik gorako langabetuena.



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invertie en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtse: Europa landa eremuetan inbertitzen

Aurreko baremoa ezarrita, puntuazioan berdintasuna emanez gero, inbertsio hautagarri gehien duten laguntza eskaerek izanen dute lehentasuna. Hala ere berdinketa gertatzen bada, enplegu gehien sortuko dutenek izanen dute lehentasuna.

Laguntzak, lortutako puntuazioaren arabekoak izanen dira, eta gutxienez 40 puntu eskatuko dira. Laguntzak, lortutako puntuazioaren arabekoak izanen dira. Lehentasunezko zerrendako azken onuradunak dagokion diru laguntza guztia jasotzerik ez badu, esleitu gabeko kopurua jasotzeko eskubidea izanen du, aurrekontuko diru izendapenaren gehienezko mugaraino. Hala ere, onuradunen batek uko egingen balio, edo proiektuak zenbateko txikiagoan ziurtatuko balira, laguntza hori osatuko litzateke, aurrekontuko diru izendapen aski egonda legokiokeen kopururaino.

14. artikulua. Emakidarako administrazio prozedura.

Diru laguntzen emakida lehiaketa bidez, neurrika eta urteko bideratuko da ekoizpeneko proiektuetarako; prozedura horren arabera, aurrekontuko eskabideak konparatuz emanen dira diru laguntzak, horien artean lehentasunak ezartze aldera, deialdi honetako 13. artikuluan aldez aurretik finkatutako balorazio-irizpideen arabera, eta erabilgarri dagoen kredituaren barnean finkatutako mugekin, aipatu irizpideetan oinarrituta baloraziorik hoberena lortu duten eskabideen artean.

Diru laguntzak emateko prozedura honako hau izanen da:

1. Interesdunak eskaera aurkeztu beharko du, eta horrekin batera deialdi honetako 2. eta 3. eranskinean eskatzen diren dokumentuak eta informazioa aurkeztu beharko ditu.
2. Eskaerak ez baditu aurreko atalean adierazitako eskakizunak betetzen, Cederna Garalur Elkartek interesdunari galdeginen dio eskakizun horiek zuzen ditzan gehienez ere hamar eguneko epean, eta, halaber, jakinaraziko dio zuzenketa horiek egin ezean, interesdunak atzera egin duela ulertuko dela, eta, horrenbestez, espedientea artxibatu egingen da.
3. Cederna Garalur Elkartearen Gerentziak egingen du diru laguntzak emateko prozeduraren instrukzioa.
4. Organo instrukzio-egileak eskaerak ebaluatuko ditu, hitzarmen honetako 13. artikuluan eta oinarri arautzaile hauetan ezarritako irizpideak, balorazio bideak eta lehentasunak aintzat harturik.
5. Instrukzio organoak, ebaluazioa ikusirik, eta onuradunek diru laguntza jasotzeko beharrezkoak diren eskakizun guztiak betetzen dituztela ziurtatuta, ebazpen proposamena egingen du.
6. Ebazpen proposamena ikusirik, organo eskudunak diru laguntzak emateko ebazpena emanen du.
7. Cederna Garalur Elkarteko organo erabakitzaileak (hau da, barne arauen arabera, batzorde betearazleak) emanen du diru laguntzak emateko prozeduren ebazpena.
8. Ebazpena arrazoitua izanen da, eta horren berri emanen zaie onuradunei administrazio prozedura erkideari buruzko legerian aurreikusitakoaren arabera.
9. Deialdia itxi eta hurrengo egunetik hasita hiru hilabete pasata, eskaera ezetsizat joko da.
10. Eskaera ezetsi izanaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke Cederna Garalur Elkartearen bulegoetan hilabeteko epean (edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa eskuduna duen epaitegiaren aitzinean), edo gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invlerte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko kontseilariaren aitzinean.

11. Prozedura ebazteko epemuga hiru hilabetekoa izanen da, deialdia itxi denetik kontatzen hasita.

12. Organo eskudunaren ebazpenaren bitartez diru laguntza emanda, kontratua formalizatuko da, eta onuraduna diru laguntza eman duen entitateak eskatzen dionean kontratua sinatzera agertzen ez bada, horri uko egin diola ulertuko da.

13. Dokumentazioa jaso eta egiaztatuta, eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak horren kontrola egin eta dirua ordainduta, Cederna Garalur Elkarteak sustatzaileari diru laguntza ordainduko dio.

15. artikulua. Laguntza eskaerak aurkezteko lekua eta epea.

1. Toki garapeneko estrategien diru laguntzetan interesdunek Cederna Garalur Elkartearen eskualde bulegoetan edo bulego nagusian aurkeztu beharko dituzte eskaerak, segun eta eskaera egiten duen entitatea edo udalerrria horien barnean sartuta dauden ala ez. Lehenespenez, eskualde bulegorik ez badute, Antsoingo bulegoetan aurkeztu beharko dute:

Cederna Garalur Elkartearen jarduera esparruko eskualdeko garapen agentziak ondorengo horiek dira. Toki Garapeneko Agentziekin (TGA) harremanetan paratzeko, honako helbideetara joan edo telefono zenbakietara dei egin beharko da:

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

GARAPEN-AGENTZIAK	TGEaren KOKAPENA	TELEFONO-FAXA	POSTA ELEK.
I Sakana Susana Mendinueta	Sakanako Zerbitzu Zentroa Utzubar industrialdea, 8 31839 Arbizu	Telefonoa: 948 567010 Faxa: 948461505 Mugikorra: 639.90.03.36	sakana@cederna.es
Leitzaran-Larraun-Ultzama Elena Irigoien	<u>Plazaolaren Geltokian</u> 31870 Lekunberri: <u>Ultzamako Udala</u> K/ San Pedro, 8 Larrainzar <u>Leitzako Udala</u> K/ Elbarren 1 31880 Leitza	<u>Teléfono y Fax</u> <u>Plazaola:</u> 948 507334-948 507333 <u>Ultzamako tel.:</u> 948305115 <u>Leitzako tel.:</u> 948610676 Móvil: 617.60.93.28	lekunberri@cederna.es
Bortziriak-Malerreka-Bertizarana Arantza Arregi	<u>Bidasoako enpresa-zentroa</u> Alkaiaga Industrialdea, 2B 31770 Lesaka <u>Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea</u> Zazpigurutze Karrika 2, behea 31740 Doneztebe	<u>Bidasoako enpresa-zentroaren tel. eta faxa:</u> 948 625122-948 625132 <u>Mankomunitatearen tel.:</u> 948 451746 Mugikorra: 606.43.13.57	bidasoa@cederna.es
Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi Izaskun Abril	Baztango Udala 31700 Elizondo	<u>Telefonoa eta faxa:</u> 948 580 561 Mugikorra: 606.40.86.13	baztan@cederna.es
Erroibar-Aezkoa-Esteribar Edurne de Miguel	<u>Erroibarko Udala</u> Erroibarko Udaletxea Frantziarako errepidea, z/g 31696 Lintzoain (Erro) <u>Esteribarko Udala</u> Esteribarko Udaletxea Orreaga etorbidea 13, 31630 Zubiri <u>Aezkoa Ibarreko Batzarra</u>	<u>Erroko tel. eta faxa:</u> 948768132- 948768072 <u>Esteribarko tel. eta faxa:</u> 948304345- 948304128 <u>Aribeko tel. eta faxa:</u> 948764359- 948764047 <u>Teléfono y fax</u> <u>Luzaide:</u> 948 790117-948	erro- aezkoa@cederna.es

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

	K/ Santa Maria, z/g 31671 Aribere <u>Luzaideko Udala</u> K/ Elizaldea 31660 Luzaide	790117 Móvil: 639.90.53.57	
Erronkari-Zaraitzu Amaia Mauleon	Pirinioetako Zerbitzu Zentroa Izize industrialdea 31451 Izize	<u>Telefonoa eta faxa:</u> 948 470092- 948 104700 Mugikorra: 639.90.52.90	roncal- salazar@cederna.es
Agoitz-Irunberri Carlos Garcia	<u>Agoizko Udala</u> 31450 Agoitz. <u>Irunberriko Udala</u> 31440 Irunberri	<u>Agoizko telefonoa:</u> 948 336 337 Mugikorra: 639.90.53.59 <u>Irunberriko tel.:</u> 948 880 010 Mugikorra: 639.90.53.59	prepirineo@cederna.es
Zangoza Gabriela Orduna	Zangozako Udala Kale nagusia, 31 31400 Zangoza	<u>Telefonoa:</u> 948 430 560 Mugikorra: 639.90.44.01	sanguesa@cederna.es
Beste eskualdeak eta udalerrak	Cederna Garalur Elkartea Berriobide, 40 31013 Antsoain	<u>Telefonoa:</u> 948 20 66 97 Faxa: 948 21 10 51	info@cederna.es

2. Eskabidea egiteko eredu estandarizatua Cederna Garalur Elkartearen bulegoetan eskura daiteke. Eskabide horrekin batera, deialdi honetako 1. eta 2. eranskinetan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3. 2012. urterako eskaerak deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta 2013ko maiatzaren 10a bitartean aurkez daitezke.

16. artikulua. Diru-laguntza emateko ebazpenaren ondoren eskabidea aldatzea.

Arrazoiak emanda, diru-laguntzak emateko ebazpena eman ondoren inbertsio planari loturiko aldaketa nabarmenak egin behar direnean, proiektu osagarria edo ordezkotua proiektua aurkeztu ahal izanen da. Plan hori hasierako planerako irizpide tekniko eta ekonomiko berei jarraituz onetsi beharko da, eta, hala badagokio, laguntza doitu beharko da; betiere, ekitaldian dagoen aurrekontuak baldintzatuko du. Halaber, hautaketa irizpideen arabera, ez dira deialdi horretan laguntza lortu duten espedientei negatiboki eraginen dieten lehentasun hurrenkeran aldaketarik izanen.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan Inbertitzen

Inbertsio planaren aldaketa nabarmentzat hartuko dira:

- a) Ekoizpenaren orientazioa aldatzea, jarduera motaren, sektorearen, nahiz kudeaketa sistemaren arabera.
- b) Enpresaren katalogazioa aldatzea, tamainaren edo tipologiaren arabera.
- c) Jarduera maila eta/edo jarduera eragileak gehitzea edo kentzea, hasieran aurreikusitako balioaren % 25etik gora.
- d) Obra zibileko elementuak, makineria edo ekipamendua gehitzea, kentzea edo aldatzea, hasieran aurreikusitako balioaren % 35etik gora.
- e) Inbertsioen kokapenaren aldaketa egitea.

Proiektuei luzapena emanen zaie baldin eta horiek proiektuaren % 50 baino gehiago burutua badute, eta arrazoi oso larri batengatik; betiere, behar bezala justifikatuta.

17. artikulua. Laguntza eskaera eta ordainketa

Onuradunak proiektuan jasotako inbertsioa bukatuta, horri dagokion laguntza ordaintzea eska dezake. Horretarako, finkatutako inprimakia bete beharko du; inprimaki horretan, egindako inbertsioak zerrendatuko dira, eta arau honetako 3. eranskinean aipatzen diren dokumentuak aurkeztuko dira.

Proiektua nabarmen aldatzen ez bada, eta azken xedeari eusten badio, diru-laguntza ordaintzeko, emakidan onartutako aurrekontuan aldaketak egitea onar daiteke:

- a) Inbertsio motei eta gastu motei dagozkien balioen, eta inbertsioen eta gastuen % 10eraino.
- b) % 35eraino, inbertsio edo gastu mota berdinen barnean dauden balioen barnean.

Cederna Garalur Elkarteak onuradunari egingen dion ordainketa, bukatutako proiektuetarako Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak egingen duen funts ekarpenen baitan egonen da.

18. artikulua. Ordaintzeko ebazpena eta alde zurretiko kontrolak.

Diru laguntzen ordainketa jasotzeko, onuradunak 4. eranskinean aurreikusitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren funtsak jasota, Cederna Garalur Elkarteak onuradunei ordainduko die, ordaintzeko ebazpenean xedatutakoaren arabera.

Ordainketa banku transferentzia bitartez egingen da, onuradunek laguntza eskabidean adierazitako kontuan.

19. artikulua. Ondorengo kontrolak.

Eskatutako baldintzak bete direla bermatze aldera, inbertsioen geroztiko kontrolak egingen dira.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtse: Europa landa eremuetan Inbertitzen

Diru laguntza justifikatu beharra atal honetan ezarritako baldintzetan bete ezean, edo behar bezala ez justifikatzeak, Diru laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legean jasotako ondorioak ekarriko ditu.

20. artikulua. Ezinbesteko kausak.

1. Ez dira konpromisoak bete gabetzat hartuko ondoren aipatzen diren ezinbesteko kausa edo aparteko gorabeheraren bat gertatzen denean:

- a) Onuradunaren heriotza.
- b) Onuradunak lanerako iraupen luzeko ezintasun izatea.
- c) Ustiapenaren edo enpresaren zati handi bat desjabetzea, baldin eta konpromisoa izenpetu zenean, desjabetze hori aurreikusterik ez bazegoen.
- d) Lurrei eta/edo ustiapenaren nahiz enpresaren instalazioei kalte nabarmena eragin dieten hondamendi natural larriak.
- e) Ustiapeneko nahiz enpresako eraikinak istripuz suntsitzea.
- f) Produktukoazienda guztia edo zati bat kaltetu duen epizootia.

2. Onuradunak edo honen eskubidedunak ezinbesteko kausaren edo aparteko gorabeheraren berri emanen du idatziz, eta beharrezkoak diren frogak erakutsiko ditu, hori guztia, ez beharra gertatu eta 10 egun naturaleko epearen barnean.

21. artikulua. Bateriaezintasunak.

Toki-garapenerako estrategietan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izanen dira honako hauekin:

- a) Merkatuen Antolamendu Bateratuaren barnean, edo LGPko 1. ardatzean (nekazaritza eta baso sektorearen lehiakortasuna areagotzea), 2. ardatzean (ingurumena eta landa eremua hobetzea) eta 3. ardatzean (bizi-kalitatea landa eremuetan, eta landa eremuen ekonomia dibertsifikatzea) helburu berdinarekin emandako laguntzekin.
- b) Diru laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen ondorio direnekin.
- c) Xede berarekin Vianako Printzea – Kulturako, Turismoko eta Instituzioekiko Harremanetarako Departamentuak emandakoekin.
- d) Xede berarekin Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak emandakoekin, I+G+b-koak barne.

22. artikulua. Ez-betetzeen mailakatzea, murrizketak eta salbuespenak.

1. Inbertsio plana buruturik, inbertsioaren zenbatekoa onetsitakoa baino txikiagoa bada, laguntzen zenbatekoa doitu eginen da, proportzioan gutxituz eta inolako zehapenik gabe.

2. 8. artikuluan aipatzen diren konpromisoak eta betebeharrak bete ezean, laguntzak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, honako irizpideei jarraiki:

- a) 8.1.a) artikuluan aipatzen den konpromisoa ez-betetzat joko da, inbertsioa bukatu eta hurrengo bost urtean jarduera edo ekoizpeneko efektiboak erabat utzi edo neurri handi batean murriztuko balira, edo ustiapena, enpresa nahiz instalazioak beste lekuren batera eramango balira. Ez-betetzeen arabera, itzuli beharreko portzentajeak honako hauek dira:
 - Jarduera bertan behera uztea, edo hondoa jotzea: 100%.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invertie en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

- Produkzio instalazioa edo sozietatearen egoitza Nafarroatik kanpo eramatea: % 100.
- Inbertsioak emakidarako oinarri izan ziren zonaldeak ez diren Nafarroako beste batzuetara eramatea: % 100.

Lehiaketa bidezko prozeduretan, krisi espedienteetan eta enplegu erregulazioetan, enpresak bideragarritasun ekonomikoa erakutsiko duen plana ekarri beharko du. Hala egin ezean, laguntza osoa itzuli beharko du.

- b) Plana emakidaren ebazpenean finkatutako epean, edo planari emandako luzapenen barnean gauzatzen ez bada, Cederna Garalur Elkartek, kasuaren arabera, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko du, Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legean ezarritakoaren arabera.
- a) Publizitate ekintzak ez betetzeak murrizketa ekarriko dio laguntzen zenbatekoari; gutxienez % 20koa. Baldintza hori behin eta berriro betetzen ez bada, edo ohartarazpena egiten bada, diru laguntza % 40raino murrizten ahal izanen du.
- b) Organo kudeatzaileari jarraipen eta ebaluazio adierazleak ez emateak diru laguntza % 40, gutxienez, murriztea ekarriko du.
- c) Administrazioak egiten dituen kontrolei men ez egiteak diru laguntza bere osoan itzuli behar izatea ekarriko du.
- d) Jasotako gainerako betebeharrak ez betetzeak diru laguntza gutxienez % 20 murriztea ekarriko du.

3. Onuradunak, nahita, aitorten faltsua egin duela, edo inbertsioak aurkeztutako proiektuarekiko eta aipatutako irizpideekiko alde nabarmena duela egiaztatzen bada, emandako laguntza bertan behera geratuko da, eta ordaindutako kopuru guztiak itzuli beharko dira. Horrez gain, onuraduna, ekitaldi horretan, neurri horretarako bideratutako laguntzetatik kanpo geratuko da, diru laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezartzen dituen zigorrek ezartzeari utzi gabe.

4. Aurreko ataletan adierazitako xedapenek ez diote kalterik egiten Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren -NBEUF- zirkularrean ezarritakoari: "2007-2013 aldian landa garapenerako laguntzak murrizteko eta baztertzeiko irizpideak".

23. artikulua. Itzulketak, arau hausteak eta zehapenak

Itzulketak, arau hausteak eta zehapen administratiboak, erkidegoaren araudiari kalterik egin gabe, diru laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2008 Foru Legeak xedatutakoak arautuko ditu.

Gaiaren arabera, arau hausteak zehazteko eta zehapenak ezartzeko prozedura bat etorriko da abenduaren 9ko 369/1997 Foru Dekretuarekin (nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura gaietan zehapen prozedura administratiboa onartzen duena), edo Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearekin bat etorriko da.

24. artikulua. Legeria aplikagarria

Toki garapenerako estrategietako ekintzak honako hauei lotuta daude: deialdi honi, Nafarroako Foru Erkidegoaren 2007-2013 LGP programaren LEADER 4. ardatza inplementatzeko onartutako hitzarmenari eta ondorengo aldaketei edo berrikuspenei, Hitzarmeneko III.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

Eranskineko Arau erregulatzailerako 24. artikuluan aipatzen den erkidegoaren araudiari, diru laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeari eta sektore bakoitzean ezar daitezkeen araudiari.

Halaber, toki garapenerako estrategietako ekintzek estatuko laguntzei buruzko 1698/2005 zenbakia duen Araudiko (EB) VIII. tituluan xedatutakoa bete beharko dute.

- a) Diruz lagun daitezkeen neurriaren edo ekintzaren arabera, honako arautegi eta erkidegoaren egitateak errespetatu beharko ditu:
- Eskualdea xede duten Estatuko laguntzei buruzko zuzentarauak, 2007-2013 aldirako (2006/C 54/08).
 - Nekazaritza eta baso sektoreetara Estatuak bideratutako laguntzei buruzko erkidegoaren zuzentaraua, 2007-2013 (2006/C 319/01).
 - Europako Batzordearen gomendioa, 2003ko maiatzaren 6koa, mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoa (2003/361/CE).
 - Erkidegoaren zuzentarauak, ingurumenaren aldeko Estatuaren laguntzei buruzkoak (2008/C 82/01).
 - Erkidegoaren zuzentarauak, krisi egoeran dauden enpresak bere onera ekartzeko eta berregituratzeko Estatuaren laguntzei buruzkoak (2004/C 244/02).
 - Arrantzaren eta nekazaritzaren sektorean Estatuko laguntzak aztertzeko zuzentarauak (2008/C 84/06).
 - Eskualdea xede duten Estatuko laguntzei buruzko zuzentarauak, 2007-2013 aldirako – Eskualdeko laguntzen mapa: Espainia (2007/C 35/03).
 - Kontseiluaren 994/1998 zenbakia duen Erregelamendua (EB), 1998ko maiatzaren 7koa, Europako Erkidegoaren Eratze Ituneko 92. eta 93. artikulua Estatuko hainbat laguntza maila horizontalei ezartzei buruzkoa.
 - Kontseiluaren 659/1999 zenbakia duen Erregelamendua (EB), 1999ko martxoaren 22koa, Eeko Ituneko 93. artikulua ezartzeko xedapenak ezartzen dituen.
 - Batzordearen 800/2008 erregelamendua, abuztuaren 6koa, mailaka salbuespenen erregelamendu orokorra onartzen duena.
 - Batzordearen 1857/2006 Erregelamendua (EB), 2006ko abenduaren 15koa, nekazaritza produktuak ekoiztera bideratutako enpresa txiki eta ertainentzako estatu laguntzei Ituneko 87. eta 88. artikulua ezartzei buruzkoa. Erregelamendu honek 70/2001 erregelamendua (EB) aldatzen du.
 - Kontseiluaren 1998/2006 Erregelamendua (EB), 2006ko abenduaren 15koa, minimis laguntzei Ituneko (EB) 87. eta 88. artikulua ezartzei buruzkoa.
 - Kontseiluaren 1535/2007 Erregelamendua (EB), 2007ko abenduaren 20koa, nekazaritzako produktuen sektorean minimis laguntzei Ituneko (EB) 87. eta 88. artikulua ezartzei buruzkoa.
 - 2009ko abenduaren 17ko C(2009) 10412 batzordearen erabakia.
- b) Administrazioak LGPren zati gisa kudeatzen dituen 1 ardatzetik 3rako neurrietan oinarrituta aukeratutako operazioei finantziario osagarria ez jartzea.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtse: Europa landa eremuetan Inberlützen

25. artikulua. Administrazio errekurtsuak

Deialdi honen edo eskatutako diru laguntza bakoitza emateko ebazpenen kontra (baiesleak zein ezesleak) gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izanen da Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariaren aitzinean hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean (deialdi honi dagokionez) argitara eman denetik hasita, edo jakinarazpena egiten denetik hasita (ebazpenari dagokionez).

Xedapen gehigarri bakarra.

Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

1 ERANSKINA

EREMU GEOGRAFIKOA

Eremu geografikoa osatzen duten udalerriak honako hauek dira:

KODEA	UDALERRIA
3	Abaurregaina
4	Abaurrepea
9	Oibar
10	Altsasu
17	Anue
19	Agoitz
20	Araizkoa
22	Arantza
24	Arano
25	ARAKIL
27	Arbizu
28	Artzi
31	Areso
33	Aria
34	Aribe
37	Arruazu
40	Atetz
44	Bakaiku
49	Basaburukoa
50	Baztan
52	Belaskoain
54	Bertizarana
55	Betelu
58	Auritz
59	Burgi
69	Kaseda
71	Gazteluberri(*)
73	Ziordia
75	Ziritza
81	Donamaria
82	Etxalar
83	Etxarri
84	Etxarri Aranatz

KODEA:	UDALERRIA
85	Etxauri
86	Egues
87	Elgorriaga
90	Eratsun
91	Ergoiena
92	Erro
93	Ezkaroze
94	Eslaba
95	Espartza Zaraitzu
98	Esteribar
101	Ezkabarte
102	Ezkurra
103	Ezporogi
110	Galipentzu
111	Galoze
112	Garaioa
113	Garde
115	Garralda
117	Goizueta
118	Goñi
119	Gorza
123	Uharte-Arakil
124	Ibargoiti
126	Imotz
127	Irañeta
128	Izaba
129	Ituren
130	Iturmendi
131	Itza
132	Itzagaondoa
133	Itzaltzu
134	Jaurrieta
135	Javier

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

Kodea:	UDALERRIA
136	Txulapain (*)
137	Labaien
138	Lakuntza
140	Lantz ^(*)
144	Larraungoak
146	Leatxe
149	Leitza
151	Lerga
153	Lesaka
155	Ledeia
156	Lizoain
158	Longida
159	Irunberri
172	Elo
181	Nabaskoze ^(*)
185	Otsagabia
186	Odieta ^(*)
187	Oitz
188	Olaibar ^(*)
189	Olazti
194	Olo
195	Orbaitzeta ^(*)
196	Orbara ^(*)
198	Orontze
199	Orotz-Betelu
203	Petilla de Aragon
209	Erromantzatua
210	Erronkari
211	Orreaga
212	Zare

Kodea:	UDALERRIA
213	Saldias
216	Zangoza
221	Doneztebe
222	Sartze
226	Sunbilla
236	Ultzama
237	Untziti
239	Urdazubi
240	Urdiain
241	Urraulgoiti
242	Urraulbeiti
243	Urrotz Hiria
244	Urrotz
245	Urzainki
247	Uztarroze
248	Luzaide
250	Bera
252	Bidankoze
253	Bidaurreta ^(*)
256	Hiriberri Aezkoa
259	Igantzi
261	Esa
262	Zabaltza ^(*)
263	Zubieta
264	Zugarramurdi
904	Irurtzungoa
908	Lekunberri

(*) Tokiko Ekintza Taldeak hautatzeko deialdiko arauak ezartzen dituen abenduaren 14ko 553/2007 Foru Aginduko 3. artikuluko f) atalaren arabera sartutako udalerriak.

2.ERANSKINA

LAGUNTZA ESKAERAREKIN BATERA DOAN DOKUMENTAZIOA

Toki garapenerako estrategietako proiektuetarako laguntza-eskaerek honako dokumentazioa jaso beharko dute:

1. Nortasun juridikoa egiaztatzen duen dokumentazioa:
 - a) Pertsona fisikoentzat: IFZren fotokopia.
 - b) Pertsona juridikoentzat:

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtza: Europa landa eremuetan inbertitzen

- IFKren fotokopia.
 - Eratzeko eskrituraren eta estatutuen fotokopia
 - Eskaera bideratzeko, ordezkaria izendatzeko akordioa, edo notario ahalordea.
 - Kapital sozialaren banaketaren egiaztagiria, organo kudeatzaileak hala eskatzen duenean.
- Kooperatibei edo eraldaketarako nekazaritza sozietateei -ENS- dagokienez:
- Nafarroako kooperatiben erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, edo, hala dagokionean, aipatu egiaztagiriaren kopia.
 - Gobernu-organoko kideak: izen-abizenak eta IFZ.
 - Bazkideen zerrenda, organo kudeatzaileak eskatzen badu.
- Beste entitate batzuei dagokienez:
- Gaur egun bazkide direnen izen zerrenda.
 - Kapital sozialean bakoitzak duen ekonomi partaidetzaren zenbatekoa.
 - Administrazio kontseiluko edo zuzendaritza organo baliokideko partaideak.
2. Beharrezkoa bada, ebazorganoaren akordioa, edo laguntza-eskaera egiten duen administrazioaren ebazpena (toki-erakunde publikoek osoko bilkuraren erabakia).
 3. Aurreikusitako ekintzak garatzea legezkoa dela bermatuko duten ondasun higiezin gainera jabetza edo erabilera titulua.
 4. Administrazio legeriak aurreikusten dituen debekuetan edo bateraezintasunetan ez dagoela egiaztatuko duen agiria.
 5. Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legean xedatutakoa onartzeko konpromisoa.
 6. Enpresa txikia bada, Europako Batzordearen 2003/361/EE Gomendioa betetzen duela bermatuko duen dokumentazioa: langileen zerrenda, balantzea eta emaitzen kontua.
 7. Proiektua, toki garapenerako estrategietan (7. artikulua) eta arau honetako 2. eranskinean xedatutakoa betez.
 8. Turismo jarduerarekin lotura duten proiektuetan, Vianako Printzea – Kulturako, Turismoko eta Institutioekiko Harremanetarako Departamentuaren aldeko txostena.
 9. Lehen sektoreko jarduerekin lotura duten proiektuetan, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentuaren aldeko txostena aurkeztu beharko da.
 10. Jarduera berria, osorik eta zati batean, Erkidegoaren intereseko lekuren batean garatzen bada, Cederna Garalur Elkarteari idazkia igorri beharko zaio, ingurumen-agintaritzak betea, leku horren erabilera eta kudeaketa planarekin bat datorrela adierazteko.
 11. Eskatzaileak sinatutako aitortpena, honako hauek adieraziz:
 - inbertsioak laguntza eskaera aurkezteko data baino lehen hasi ez izana.
 - Ez dagoela diru laguntzei buruzko 11/2005 Foru Aginduan aurreikusitako laguntzak jasotzeko debekuetan.
 - Helburu horretarako bererako ez duela bestelako laguntzarik eskatu edo jaso.
 12. Jarduera Ekonomikoen gainera Zergaren azken ordainagiria, edo aipatu zerga eguneratua duela bermatuko duen agiria.
 13. Ordainketak eta betebeharrak eguneratuta dituela bermatuko duen Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren egiaztagiria.
 14. Gizarte Segurantzako ordainketak eta betebeharrak eguneratuta dituela bermatuko duen Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren egiaztagiria.
 15. Organo kudeatzaileak Nafarroako Foru Erkidegoan eta Estatuan laguntzak bideratzearen inguruan dauden datu baseak kontsultatzeko baimena.
 16. Laguntzak jaso nahi diren banku entitateko kontu zenbakira transferentzia bidezko abonua egiteko eskaera.
 17. Tokiko Ekintza Taldeak, hartu beharreko erabakia arrazoituz hartzeko, beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentu.



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

18. Aitorpena, non adieraziko baitu segurtasun arloan, laneko osasunean eta laneko arriskuen prebentzioan betebeharrak guztiak eguneratuta dituela.

3. ERANSKINA

ESKAERAREKIN BATERA JOANEN DEN PROIEKTUA

Dokumentu honek, hasierako egoera oinarri hartuta, inbertsio berriak eta/edo gastuak identifikatu, deskribatu eta aztertzen ditu. Bestalde, hala dagokionean, jarduera abian paratzeko ezinbestekoa den bideragarritasun teknikoa, ekonomiko eta finantzarioa, hirigintzakoa eta ingurumenekoa aztertzen ditu, eta beharrezkoak diren prozedurak eta estrategiak garatzen ditu. Honako hauek jaso behar ditu, bederen:

- a) Proiektuaren izena
- b) Proiektuaren justifikazioa
- c) Proiektuaren izaera berritzailea
- d) Onuradunaren aurkezpena:
 - Identifikazioa (izena, izen komertziala, IFK), kokapena eta orientazio produktiboa. Europako Batzordeak mikroenpresei eta ertainei buruz egindako 2003/631/EE Gomendioaren arabera, enpresa txikia izatea.
 - Titularitatea, titularren zerrenda eta enpresaren edo ustiapenaren (izena, izen komertziala) kapital sozialean bakoitzak duen partaidetza (IFZ, IFK, eskumenak eta estatutuak).
 - Pertsona fisikoa edo juridikoa, eta, hala badagokio, titularren zerrenda eta kapital sozialean edo enpresa elkartuen kapital sozialean bakoitzak duen partaidetza (IFZ, IFK, eskumenak eta estatutuak).
 - Enpresaburuaren aurkezpena: diruz lagundu asmo den arloan duen enpresa prestakuntza eta esperientzia (gaitasun teknikoa).
 - Urteko kontuak (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua)
 - Plantilla, mailaka eta kontratu moten arabera sailkatuta
 - TETk proposatutako eta Nafarroako Gobernuak ekainaren 6ko 286/2008 Foru Aginduan onartutako Landa Garapenerako Estrategiaren barnean proiektua non kokatzen den adierazten duen epigrafea.
 - Proiektuak 2007-2013 LGP programako 1., 2. edo 3. ardatzetako eta TETren Landa Garapenerako Estrategian ezarritako helbururen bat lortzen zertan laguntzen duen erakusten duen epigrafea.
- e) Jarduera eremu geografikoa
- f) Jarduera berriak garatzeko mugarrak eta helburuak.
 - Jarduera berriaren identifikazioa, kokapena eta orientazioa.
 - Helburu estrategikoak.
- g) Egin asmo diren jardueren deskribapena
- h) Jardueren araberrako adierazleak, neurketa eta jarraipena egiteko
- i) Espero diren emaitzak, eta proiektuaren onuradunak.
- j) Proiektuak biztanle-sektoretan izanen duen eragina; besteak beste, emakumeengan, gazteengan eta garrantzi bereziko beste taldeetan.
- k) Ingurumeneari izanen duen eragina eta hobekuntzak, eta natur baliabideen balorizazioa.
- l) Enplegua sortzea: jarduera berriak izanen duen eskulanaren zerrenda sailkatua eta kuantifikatua.

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

m) Proiektuaren kronograma

n) Proiektuaren inbertsio-plana edo aurrekontua, gastuen arabera banaturik:

- Aurreikusitako inbertsioen zerrrenda baloratua, eta inbertsio horiek gauzatzeko iraupena fasetan.
- Martxan jartzeko gastuen zerrrenda baloratua.
- Ekoizpeneko proiektuak direnean, bideragarritasun ekonomikoaren azterketa. Horretan, finantziazio-iturriak, hartzen diren obligazioak, eta epealdian aurreikusten diren sarrerak eta gastuak jaso beharko dira.

o) Inbertsio planean deskribatutako lanen eta instalazioen inguruko proiektu teknikoa. Berau, 60.000 eurotik gorako inbertsioetan, gaian tituludun eskudun batek sinatua, eta horren lanbide elkargoak bisatua egonen da. Honako datuok jasoko ditu gutxienez:

- Lanen edo hobekuntzen deskribapena, planoak, kalkulu teknikoak, aurrekontuak eta proiektuak beharrezkoak dituen bestelako kapituluak jasoko dituen oroitza txostena.
- Inbertsioak makinerian eta ekipoetan.
- Proiektu, aholkularitza, eta patenteak eta lizentziak erosteko gastuak.

Hala dagokionean, proiektuarekin batera aurkeztuko den dokumentazioa:

- Hala dagokionean, Nafarroako Katastroetik, lanak edo hobekuntzak kokatuko diren lursail zedulen fotokopia, eta horretan aipatu lanak edo hobekuntzak non joanen diren adieraziko da.
- Udalaren obra lizentzia edo horren eskaera, beharrezkoa denean.
- Inbertsioaren barnean eraikin erabiliak erostea dagoenean, tasatzaile independente baten ziurtagiria, erosketa prezioa merkatu prezioa baino handiagoa ez dela egiaztatuko duena. Tasazioan lokalaren prezioa eta lokala kokatzen den lursailen prezioa bereiziko da.
- Errentan hartutako finka nahiz orubeetan diruz lagun daitezkeen inbertsioak egiten direnean: errentamendu kontratuaren kopia (errentamenduaren iraupena, gutxienez, inbertsioa amortizatzeko epearen adinakoa izanen da).
- Ingurumen arloko baimen integratua edo jarduera sailkatuko udal lizentzia, jarduera ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen eraginpean dagoenean.

p) Ekoizpeneko proiektuak direnean, aurrekoen gain:

- Produktu nahiz zerbitzuaren definizioa: deskribapena eta merkatuan dauden beste produktuekiko berezitasunak. Hala dagokionean, enpresa zein negoziotan instalatu nahi den mugatzea.
- Marketin plana: merkatu azterketa, helburu komertziala eta aurreikuspenak, prezioak banaketa eta merkaturatzea, komunikazioa eta publizitatea.
- Dagokionean, eta proiektuaren tipologiaren arabera, eragiketa plana.
 - ✓ Fabrikazio prozesuaren edo zerbitzuaren deskribapena, eta gaitasuna. Zerbitzu bat sortzen bada, besteak beste ezaugarriak, plaza kopurua, eta hartuko diren bisitak adieraziko dira.
 - ✓ Lehengaien zerrrenda, urtean zenbat erabiliko diren, lehengaien jatorria, eta fabrikari duen balioa.
 - ✓ Baliabide materialak: makineria, tresneria eta ibilgailuak, eta abar.
 - ✓ Lehengaiak eta produktu bukatuak biltegitratzeko gaitasuna.
 - ✓ Azpiegiturak: ondasun higiezinak, orubeak, eraikinak, eta abar.
- Ekonomi eta finantza plana, behin-behineko ustiapenaren kontua, behin-behineko altxortegi plana, behin-behineko balantzea, eta inbertsioak eta finantziazio iturriak.

q) Prestakuntza-ekintzak badira, bete ikasleen fitxa, eta irakasleen eta ikasleen asistentzia-kontrola.



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

4. ERANSKINA

ORDAINKETAK EGIN AITZIN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. GASTUEN JUSTIFIKAZIO FAKTURAK:

Gastuak faktura orijinalen, ordainagiriaren eta merkataritza trafiko juridikoan nahiz eraginkortasun administratiboan antzeko froga-balioa duen beste edozein dokumenturen bitartez egiaztatuko dira. Ez dira onartuko eskura egindako ordainketak. Gastuak faktura elektronikoen bitartez ere egiazta daitezke; betiere, zerga arloan onartuak izateko baldintzak betetzen badituzte.

Eraikuntzako fakturei dagokienez, obra unitateak eta horietako bakoitzaren prezioa adierazi behar da derrigorrez. Joan-etorriak, bidaiak edo dietak daudenean, egindako bileren txostena, bertaratuen zerrenda, eta behar bezala justifikatutako gastuak eta kilometroak jaso beharko dira.

2. EGINDAKO JARDUERAREN OROITZA TXOSTENA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO KONTZEPTUAK AURKEZTEA:

OROITZA TXOSTENAK 4. eranskinean xedatutako puntu guztiak jaso behar ditu, gauzatzean izan diren desbideratze edo aldaketa arrazoituekin, eta horiek justifikatuko eta azalduko dituzten dokumentuak barne.

3. BESTELAKO FINANTZIAZIO ITURRIEN INGURUKO AITORPENA:

Nahitaez aurkeztu beharko da bestelako finantziazio-iturririk dagoen ala ez adierazten duen aitorpen edo ziurtagiri sinatua, funts propioekin edo bestelako diru-laguntza edo baliabideekin finantzatu den adierazten duena. Ziurtagiri horretan, zenbateko banakaturak, finantziazioa nondik datorren (adierazi aurrekontu-partida eta urtea), eta subentzionatutako jarduera bakoitzerako bideratutako funtsak identifikatu beharko dira, Hitzarmena erregulatzen duen arauetako 24. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

4. ZERGA BETEBEHARRETAN ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKO BETEBEHARRETAN EGUNEAN DAGOELA ERAKUSTEN DUTEN ZIURTAGIRIAK AURKEZTEA.

Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela erakusten duen ziurtagiria, eta, hala badagokio, zerga aitorpen-likidazioa eta kotizazio buletinak.

5. PROGRAMAK ESKATZEN DUEN PUBLIZITATE BALDINTZA BETE DELA ERAKUSTEN DUEN EBIDENTZIA AURKEZTEA

Onuradunek, eginen dituzten komunikazio guztietan, batez ere publikoetan (prentsurrekoak, ahozko nahiz idatzizko elkarrizketak, prentsako nahiz bestelako argitalpenetako informazioak), Cederna Garalur Elkarteak, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak

LGP 4. ARDATZERAKO DEIALDIA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa Invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan Inbertitzen

emandako finantziazioaren berri eman beharko dute, eta aipatu entitateen logotipoa erakutsi beharko dute.

Nahitaezko publizitate horretan, subentzioaren xedearekin lotura duten jardueretan, inbertsioetan nahiz edozein motako publizitate ekintzetan finantziazioaren izaera publikoaren berri eman beharko da. Aipatu informazioa argitaratzen dela, publizitate plaka ikusteko moduan paratzen dela, inprimatutako publizitate ale guztietan ageri dela, edozein irrati edo telebistatan horren inguruko aipamena egiten dela ziurtatu beharko da. Gutxienez, 2006ko abenduaren 15eko 1974/2006 Erregelamenduko (EB) VI. eranskinean xedatutakoa betetzen dela bermatuko da.

Betebehar horrek iraunen du egindako inbertsioak edo gauzatzeak iraunen duen urte guztietan, horren zuzeneko erantzulea laguntzaren onuraduna izanik.

6. BERARIAZKO BESTE DOKUMENTU BATZUK HONAKOETAN:

- Hala dagokionean, irekitzeko baimena edo berau bideratzen ari dela erakusten duen ziurtagiria.
- Obraren bukaerako ziurtagiria, edo antzeko dokumentua, bidezkoa bada.
- Obretarako lizentziari, jarduera sailkaturako lizentziari edo ingurumen baimen integratuari eta animalien babesari buruzko agiriak, eskatzen ahal badira, eta horiek laguntza eskabidearekin batera eskatu ez badira. Aurkeztu ezean, laguntza ondoriorik gabe utziko da eta jasotako kopuruak itzuliko dira.
- Ondasun higiezinak eskuratzen badira, Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren likidazioa aurkeztu beharko da.
- Prestakuntza nahiz informazio proiektuen kasuan, ikasleen fitxak, ikasleen eta ikasleen bertaratze kontrola (prestakuntza kasuetan).
- Proiektuaren xede diren inbertsioen kontabilitate-idazpenak, eta diru-laguntza jasota, sustatzaileek diru-laguntza jaso izanaren kontabilitate-idazpenei buruzko informazioa igorri beharko dute kontzeptu honekin: "LGENF – Nafarroako Gobernuaren tokiko garapen estrategietarako subentzioak LEADERen. LGP 2007-2013".

Hornitzailea edo laguntza tekniko esleitu izanaren ziurtagiria kontratuei buruzko 6/2006 Legean eta sektore publikoko kontratuei buruzko 30/2007 Legea, edo, hala badagokio, diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legean eta diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako eragimen eta ekonomia irizpideak betez egin dela bermatzen duen dokumentazioa

7) TOKIKO EKINTZA TALDEAK, HARTU BEHARREKO ERABAKIA ARRAZOITUZ HARTZEKO, BEHARREZKOTZAT JOTZEN DUEN BESTE EDOZEIN DOKUMENTU.